



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

2019ko URRIAREN 8an EGINIKO OHIKO BILKURAREN AKTA

Asteasuko Udaletxeko Pleno Aretoan, 2019ko urriaren 8an, arratsaldeko 20.05etan, Maria Pilar Legarra Cortajarena Alkate anderearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATEA: Maria Pilar LEGARRA CORTAJARENA (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK: Jose Ramon AYERZA SARASUA (Asteasu Batuz, AB)
Larraitz ALKORTA AIZPURUA (Asteasu Batuz, AB)
Joseba TXAPARTEGI NIEVE (Asteasu Batuz, AB)
Maria Pilar ITURBE URDANGARIN (Asteasu Batuz, AB)
Unai OTEGUI IRAZUSTA (Asteasu Batuz, AB)
Joseba GOMEZ SARASUA (EAJ/PNV)
Luke URIBE-ETXEBARRIA APALATEGUI (EAJ/PNV)

IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekitzat ematen du Udal Osoko Bilkura:

GAI ZERREDA:

1. Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:

- 2019.06.15eko Udalbatzarraren akta.
- 2019.07.10eko Udalbatzarraren akta.
- 2019.07.30ko Udalbatzarraren akta.

2. Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:

- 2019.urtekoak (95-234)

3. 2019/05 Kreditu-aldaketa: onespena.

4. Lizarraga berri etxekeekin konpromiso agiria: onespena.

5. Erregu eta galderak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:

- **2019.06.15eko Udalbatzarraren akta.**
- **2019.07.10eko Udalbatzarraren akta.**
- **2019.07.30ko Udalbatzarraren akta.**

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Gómez, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien ahobatezko onespenerekin, aipatu aktak onartu ditu.

BIGARREN PUNTUA

Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:

- **2019.urtekoak (95-234)**

Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN PUNTUA

2019/05 Kreditu-aldaketa: onespena.

Une honetan, 20:07ak direnean, Usandizaga jauna bertaratu da.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Alkate andreak egindako proposamena aztertu da, baita gainerako txosten, ziurtagiri eta jarduketak ere. Hortik ondorioztatu da adierazitako aldaketa aurrekontuaren exekuzioa arintzeko lagungarria izango dela eta horren izapidetzea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin. Hori hala izanik, batzorde honek bidezkotzat jo du organo eskudunak onartzea kreditu transferentzia, 77.650,00 eurokoa, bai gehitutako kredituei (altak) dagokienean, bai transferitutako kredituei (bajak) dagokienean, proposamenean ageri diren aurrekontuko gastu partiden xehetasun berarekin.

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 9 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Usandizaga, Otegui, Gómez, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Gauzak horrela, eta espedientearen jasota dauden dokumentuak ikusirik, Udalbatzak,

HAU ERABAKI DU

LEHENA. Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferitutako duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN			
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			
5	KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKO USTEKABEAK			
6	INBERTSIO ERREALAK	388.078,73	77.650,00	310.428,73
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
GUZTIRA		388.078,73	77.650,00	310.428,73

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	475.292,00	75.750,00	551.042,00
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	5.000,00	1.900,00	6.900,00
5	KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKO USTEKABEAK			
6	INBERTSIO ERREALAK			
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
GUZTIRA		480.292,00	77.650,00	557.942,00

BIGARRENA. Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

LAUGARREN PUNTUA

Lizarraga berri etxekoekin konpromiso agiria: onespena.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

2019ko tokiko hauteskundeak aurretik, Asteasu Batuz-ek segidan jasotzen den dokumentua sinatu zuen Lizarraga etxeko bizilagunekin, izan ere, hauteskunde garaian ezin ziren horrelako konpromisoak onartu alkatezaren izaerarekin, ezta udalbatzarrean ere ez. Une honetan, Udalbatza berria eratu ondoren, aipatu konpromisoa aurkezten zaio Udalari, mozio/proposamen moduan izapidetzeko. Honela dio:

“Asteasuko Arau Subsidiarioetako E-6 eremuan (Zelaieta) 6 etxebizitzako eraikuntza eta 18 aparkaleku eraikitze baimena eman zuen Asteasuko Udalak, 2018 ko maiatzaren 18an.

18 aparkalekuak publikoak dira eta bi altueretan joango dira. Batean 11 eta gaikaldean beste 7.

Herriko Arau Subsidiarioek jasotakoaren arabera, eraikuntza burutzen ari den enpresak, derrigorrez 18 ko aparkaleku publiko entregatu beharko dizkio Udalari eta horretan ezin du salbuetsi.

Zelaieta ondoan kokatzen den Lizarra etxeko jabeek bere kezka azaldu dute gaikaldeko aparkalekuen sarrerak sor daitezkeen trafiko arazoagatik, intensitatea eta segurtasuna direla medio. Beraien planteamendua da, gaikaldeko aparkalekuek errepidetik duten sarrera ixtea. Honek 7 aparkalekuek okupatzen duten espazioa libratuko luke.

Bestalde, gaur egun Zelaieta eta Lizarra eraikuntzen tarteko bidetik Muskerraren Bideak igarotzen da, inguruan kokatzen baita Apalasangasti baserria (Antonio Arrue idazlearen jaiotza etxea). Une zehatz horretan Muskerraren bidea azaltzen duen “totem” bat kokatuta dago, bisitariak bertan dagoen QR aplikazioaren bidez ibilaldiaren zehaztapenak jaso ahal izateko. Prozesu hori egiten den bitartean, ibiltariak errepide bertan egon behar dira, izan ere, ez dago beste tokirik hori egiteko. Hori dela eta, errepidetik pasatzen diren ibilgailuek arriskua sortzen dute haientzat. Aipatu arriskua ekiditeko, AIU E-6an jasoko den aparkaleku tokia guztiz egokia izan daiteke aipatu den totem-a kokatzeko: toki hori ibilgailuz libre egon daiteke, eta guztiz irisgarria da bisitariarentzat. Bere ondorioz, aipatu gaikaldeko aparkalekutik 7 aparkaleku kentzearekin batera, Muskerraren bidearen ibiltarien eta Lizarra etxeko bizilagunen segurtasuna bermatu ahal izango da. Ez da ahaztu behar Udala azken urteetan Muskerraren Bidea bultzatzen ari dela udalerriko ondasun kulturala indartzeko; hori guztia Bernardo Atxaga idazlearekin batera.

Beraz, ulertu daiteka espazio hori Muskerraren Bideari erantsi behar dela, gune atsegina bat sortuz.

Hau horrela, ASTEASU BATUZ taldeak konpromezu hau azaltzen die Lizarra etxeko

jabeei:

1.- Zelaietako obra amaitutakoan, eraikuntza enpresak 18 aparkaleku entregatuko dizkio Asteasuko Udalari. Obra amaiera ziurtagiria ematen denean, Udalak bere gain hartuko ditu aparkaleku publiko horiek.

2.- Aparkalekuak Udalaren esku dauden momentuan, gaikaldean kokatutako 7 aparkaleku kendu eta errepidetik duen bere sarrera itxiko du, toki hori atsedean espazio bat bihurtuz. Espazio honetan Muskerraren Bideko totem-a jarriko du, eta eserlekuak ere. Zoruari dagokionez, asfaltoaren ordeaz beste tratamendu bat emango zaio. Tratamendu honi buruz, inguruko bizilagunekin partaidetza garatuko da gauzatuko den tratamenduaren erabakia hartu aurretik adostasuna bermatzekotan.

3.- Zelaieta etxea eta Lizarra etxea tartean dagoen errepidearen oinezko erabilera Udak Trafiko Ordenantza baten bidez erregulatuko da. Ordenantza honen izapidetzan kontsulta fase bat egingo da, legeak arautzen duen moduan. Bertan bai bermatu beharko da errepide zati batetik Elizegi etxeko garajerako sarrera, Elizatik beherantz.

Hau izango da Asteasu Batuz taldearen konpromezua beti ere, 2019ko maiatzaren 26an ospatuko diren Udak Hauteskundetako emaitzen menpe.

Asteasu Batuz alderdiak Alkatetza lortuko balu hauteskudeetan, idatzi honetan adierazten diren konpromezuak Udak Gobernuak idatziz berretsiko ditu eta, era berean, konpromezua konplitzeko egitaraua eta epeak zehaztuko ditu bertan.

Asteasu, 2019ko maiatzaren 20a

Izpta. M^a Pilar Legarra (Taldearen izenean) ”

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 9 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Usandizaga, Otegui, Gómez, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Gauzak horrela, eta espedientean jasota dauden dokumentuak ikusirik, Udalbatzak,

HAU ERABAKI DU

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea interesdunei.

BOSGARREN PUNTUA

Erregu eta galderak.

Uribe-Etxebarria jaunak hitza hartu du. Udal honeta zenbait informazio-batzorde egiten dira, eta badakigu nola funtzionatzen duten; hala, Hirigintza, Ogasuna eta Gizarte Zerbitzuetako informazio batzordeak egiten dira. Nolanahi ere, badaude beste hainbat batzorde biltzen ez direnik, eta horretagik eskatu du horiek egitea.

Ayerza jaunak hitza hartu du. Kulturako informazio-batzordeak egin izan dira, besteak beste, gai hauek aztertzeko: sailak ematen dituen diru-laguntzak diktaminatzea, herriko jaiak antolatzea, udalekuetako begiraleak, eta abar.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du arratsaldeko 20:24 orduak direnean, nik Idazkariak, bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.

Asteasun, 2019ko urriaren 8an.

Alkate andrea

Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea